



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko apirilaren 18a

53. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erizainek sendagaiak erabiltzeari eta agintzeari buruzko foru dekretu bat egin dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat taxutu eta aurkez dezan, hormoneterako kutsagarriei dagokienez biztanleriaren eta ingurumenaren eraginpetasuna murrizteko. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sakanako denda txikien lan-mahai bat era dezan, txikizkako merkataritza sustatzeko plan bat taxutu dezan eta turismoa indartzeko kanpainak bultzatuz. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeak taxutu ditzan halako moduan non ikasketak hizkuntza eredu ezberdinetan egiten dituzten ikasleek hezkuntza-esperientziak konpartituko baitituzte eta elkarrekin egonen baitira. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean patenteen sorrera susta dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LGTBI pertsonen tratu-berdintasunerako eta bazterkeriarik ezerako arlo berariazko bat sor dezan. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeen eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aitor dezan merkataritza ibiltariak Nafarroan daukan garrantzia. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean patenteak sortzea susta dezan. Mozioa erretiratzea (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu Eledunen Batzarrak 2016ko martxoaren 14an onetsitako adierazpen instituzionalean esandakoa, “Bakea eta Askatasuna Sahara Mendebaldean” taldeartekoaren XX. Konferentzia dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu “Mozal-legea” izenekoaren aurka dagoela. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Tuteran Nekazaritza Ingeniaritzako ikasketak ezartzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ebaluazio diagnostikoari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko 29 lanpostu merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Irakasleentzako Laguntza Zentroko 6 lanpostu merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuko Ikuskapen Zerbitzuak egindako ebaluazioei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio Zerbitzuak egindako ebaluazioei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, 2014-15 eta 2015-16 ikasturteetan hezkuntza sisteman berandu sartu diren ikasleen kopuruari buruzkoa, datuak hizkuntz ereduaren arabera xehakaturata, sare publikoan eta sare itunduan. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, herritarren erantzukizun fiskala eta iruzurraren aurkako borroka indartzeko foru lege bidez aurreikusitako hezkuntza-jarduketaren egoerari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, industria-ekoizpenaren gorakadari buruz berriki eman diren datuak direla-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Tafallako Errekoleten eraikinaren zaharberritzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (21. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaeleak:**

- Lehendakaritzaren 14/2016 ebazpena, 2016ko apirilaren 11koa, zeinaren bitartez aldatzen baita Lehendakaritzaren 2014ko martxoaren 24ko ebazpena, Parlamentuko batzordeetako bilkura arruntetako eta lan bileretako agerraldiak bertan behera urgentziaz uzteari buruzkoa (22. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2016ko maiatzaren 5eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena

2016ko otsailaren 12ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erizainek sendagaiak erabiltzeari eta agintzeari buruzko foru dekretu bat egin dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erizainek sendagaiak erabiltzeari eta agintzeari buruzko foru dekretu bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erizainek sendagaiak agintzeari buruzko foru dekretu bat egin dezan.

2015eko abenduaren 23an argitaratu zen Erizainek gizakientzako medikamentuak eta osasun-produktuak agintzea, erabiltzea eta baimentzea arautzen duen 954/2015 Errege Dekretua.

Errege dekretu horrek haserre handia eragin du osasun arloko profesionalen artean –bereziki, erizainen kolektiboan–, beren eskumen-esparrua murrizten duelako ohiko asistentzia-jardunari dagokionez,

premiagabeko segurtasun juridikorik eza sortzeaz gain. Xedea zen estaldura eta segurtasun juridikoa ematea Osasun Sistema Nazional guztiko gaixoei eta erabiltzaileei kalitatezko asistentzia ematearekin konprometitutako eta kualifikazio handiko kolektibo profesional baten jardunari, eta lortu dena izan da erizain-lanbidearekiko gatazka sortzea.

Gauzak horrela, PSN-PSOEn uste dugu gomendagarria litzatekeela, kolektiboaren babes juridikoaren mesederako eta gure osasungintzaren funtzionamendu normal eta onaren mesederako, modu adostuan jorratzea erizainek medikamentuak erabiltzeari eta agintzeari buruzko foru dekretu bat, beste autonomia erkidego batzuetan egiten ari diren bezala (Andaluziak badu halako bat, eta Katalunian horretan ari dira).

Foru dekretu horrek aprobetxatu egin behar ditu, aldatzen ez den bitartean, medikamentuaren egungo legegintza-esparruak eskaintzen dituen aukerak, "lankidetzaren-preskripzioa" izenekoa gartzeko; alegia, medikamentua kudeatzeko modu bat, oinarrিতa dagoena kolektibo profesional ezberdinen artean nor bere eskumenen esparruan jokatuz lankidetzaren aritzearen bitartez ezarritako asistentzia-protokoloetan.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean aurkez dezan erizainek medikamentuak erabiltzeari eta agintzeari buruzko foru dekretu bat, egungo legegintza-esparruan segurtasun juridikoa emanen duena eta erizainek arlo horretan dauzkaten eskumenak gartzeko dituen, eta dekretu hori osasungintzako kolektiboarekin adostuta taxutu dadin.

Iruñean, 2016ko apirilaren 1ean

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da plan bat taxutu eta aurkez dezan, hormonatarako kutsagarriei dagokienez biztanleriaren eta ingurumenaren eraginpetasuna murrizteko.

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita plan bat taxutu eta aurkez dezan, hormonatarako kutsagarriei dagokienez biztanleriaren eta ingurumenaren eraginpetasuna murrizteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da urtebeteko epean plan bat taxutu eta aurkez dezan hormonentzat kaltegarri diren kutsagarriek eragin apalagoa izan dezaten biztanleriarengan eta ingurumenean.

Disruptore endokrinoek (EDC, Endocrine Disrupting Chemicals ingelesez) pertsonen eta gainerrako ugaztunen hormona-sistemei eragin diezaiakete, baita arrainen, anfibioen eta beste organismo bizidun batzuen hormona-sistemei ere.

Zientzialariak 1990aren hasieran hasi ziren haien toxikoak direla onartzen. EDCak gai dira estrogenoak, testosterona eta hormona tiroideoak bezalako hormona-mailak imitatu, blokeatu edo aldatzeko, giza gorputzaren hainbat funtzio ukuita.

Organismo baten garapenaren lehenengo etapari kimiko horien eraginpean egoteak kalte

konponezinak egin ditzake, nabarmendu bizitzan aurrera egin ahala bakarrik nabarmentzen joan direnak. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) egin berri duen azterlan baten arabera, litekeena da oso EDCek zeregin garrantzitsua izatea gaixotasun "moderno" asko sortzeko orduan; adibidez, prostatako, barrabiletako eta bularreko minbizia, ernalezintasuna, anomalia genitalak, asaldurak burmuinaren garapenean, diabetesa eta obesitatea.

Orain arte 1000 substantzia inguru identifikatu dira balizko disruptore endokrino bezala. EDCak pestizida, plastiko, kosmetiko, ehun-gai eta eraikuntza-materialetan aurkitzen dira. Horrenbestez, iritsi egiten zaizkigu elikagai, aire, hauts, ibai, ozeano, animalia eta geure gorputzetara.

Osasun publikoko arazo larri honen kostu sanitarioa 157.000 milioi eurokoa da urtean Europar Batasunean bakarrik, orain dela gutxi kalkulatu denez. Osasun Publiko eta Administrazio Sanitarioren Espainiako Sozietatearen (SESPAS) arabera, Espainiako biztanleen organismoan aurkitzen diren disruptore endokrinoen mailak ('barneko kutsadura' deritzona) beste herrialde batzuetako pertsonengan daudenak baino askoz altuagoak dira, eta gure herritarren eta ongizate-estatuaren osasuna, ongizatea eta ekonomia mehatxatzen dituzte.

Foru Administrazioak funtsezko zeregina dauka kutsagarri horiei dagokienez bere biztanleen eraginpetasuna murrizten duten neurriak ezartzeko orduan. Horregatik, uste dugu garrantzitsua izan daitekeela ibilgailu-zirkulazioa murrizten duten neurriak ezartzea.

Halaber, beharrezkoa da kontuan hartzea Administrazio Publikoak obra, ondasun eta zerbitzuen merkatuko jardule nagusia direla, haien kontratazio-bolumena dela eta. Horrenbestez, kontratu eta erosketak publikoetan hormonatarako kutsagarrien eta beste substantzia kezkagarri batzuen agerpena mugatzeak zentro publikoetako (ikastetxeak eta osasun zentroak barne) langileen eta erabiltzaileen eraginpetasun-maila murrizteaz gain, merkatuan produktu seguruagoak agertzea bultzatuko du, eta, horrela, produktu garbiagoak eta seguruagoak eskaintzeko konpromisoa hartu duten enpresei lagunduko die.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea urtebeteko epean plan bat onets dezan, hormoneterako kutsagarriei dagokienez biztanleriaren eta ingurumenaren eraginpetasuna murrizteko. Plan horrek honako konpromiso hauek bilduko ditu:

a) Eredu publikoetan pestizidarik ez erabiltzea. Ez da fumigatuko parke eta lorategietan. Ez da herbizidarik erabiliko eremu publikoetan. Ez da fumigatuko ikastetxe, osasun zentro eta beste gune publiko itxi batzuetan, beharrik gabe biztanleria hormoneterako kutsagarrien eraginpean ez jartzeko. Beren-beregi debekatuko da glifosatoa erabiltzea, bai eta The Endocrine Disruption Exchange (<http://www.endocrinedisruption.org/>) erakundeak daukan balizko disruptore endokrinoen zerrendan aipatzen diren beste substantzia batzuk ere. Alternatiba gisa, lehenetsi egingen da substantzia kimiko toxikorik erabiltzen ez duten metodoak erabiltzea izurrien aurka borrokatzeko eta belar gaiztoak kontrolatzeko.

b) Fitosanitarioen aplikazioa arautzea nekazaritzan, deribaren bidezko kutsadurak saihestuta, dela haize gogorra dabilenean tratamendu fitosanitarioak aplikatzeagatik (haizeak airetik baitaramatza substantzia kimikoak), dela nekazaritzako gailuak ureztatze-ubideetan, ibilguetan, putzuetan eta abarretan garbitzeagatik. Horretarako, beren-beregi debekatuko da haizea 20 km/h-tik gorako abiaduran dabilenean fitosanitarioak aplikatzea.

e) Elikagai organikoen kontsumoa sustatzea haurtzaindegi, eskola-jantoki, zahar-etxe eta ospitaleetan. Elikadura da substantzia toxikoen eraginpean jartzeko bide nagusietako bat. Elikaduraren bitartez hormoneterako kutsagarrien eraginpean jartzeko aukerak murrizteko, Nafarroako Gobernuak askotariko dieta sustatuko du eskola-jantoki, egoitza eta ospitaleetan, arrain eta okela koipe-tsuen kontsumoa murrizteko. Halaber, elikagai organikoen kontsumoa bultzatu, bisfenol-A, ftalatoak eta bestelako disruptore endokrinoak dituzten ontziak baztertu, eta eragotzi egingen du substantzia horiek aurkitzen diren ontzi eta tresna sintetikoetan (plastikoak, tefloi eta abar) elikagaiak berotu eta prestatzea. Nafarroako Gobernuak zuzenean ezarriko ditu neurri horiek bere ardura-peko jantoki eta egoitza guztietan, eta neurri horiek udal zentroetan eta pribatuetan aplikatzea sustatuko du.

2. Nafarroako Gobernuari eskatzea informazioa eta prestakuntza-jardunaldiak antola ditzan, fami-

liekin, gazteekin, umeekin eta nerabeekin harremanetan dauden profesionali lehenespenez zuzendutakoak (hau da, familia-medikuak, pediatrak, emaginak eta erizainak). Halaber, behar diren materialak prestatuko ditu (gidaliburuak, liburuxkak eta abar) profesional horiei behar bezalako informazioa emate aldera hormoneterako kutsagarrien eraginpean egoteak osasunerako dakartzan arriskuei buruz, horrela gai izan daitezen substantzia toxikoen eraginpetasuna murrizteari buruzko gomendioak eskaintzeko, Europako beste herrialde batzuetan dagoeneko egiten den bezala. Era berean, maila guztietako hezitzaileei eta kazetari eta komunikatzaileei berariaz zuzendutako jardunaldiak eta materialak prestatuko ditu, horiek informazioa eta prestakuntza izan behar baitituzte biztanleei egiazko informazioa, aurretik egiaztatu dena, eskaini ahal izateko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatuko dio kontratu eta erosketak publikoen bidez produktu garbien erabilera susta dezan, baita konpromisoa har dezan ere The Endocrine Disruption Exchange (<http://www.endocrinedisruption.org/>) erakundeak daukan balizko disruptore endokrinoen zerrendan aipatzen diren substantzien erabilera pixkana-pixkana murrizteko eta substantzia horiek ez erabiltzeko klausulak gehitzeko, kontratu eta erosketak publikoetako baldintza-pleguetan.

4. Nafarroako Gobernuari eskatzea airearen kalitateari buruzko plan berri bat onets dezan, Europako 200 hiri baino gehiagotan egiten ari diren bezala, motordun zirkulazioa murrizteko, ibilgailuek kutsatzen dutenaren arabera mugatzeko eta garraio publikoa eta motorrik gabea (bereziki, bizikleta) indartu eta hobetzeko neurri eraginkorrak, derrigor bete beharrekoak, barne hartzen dituen.

5. Gainera, hormoneterako kutsagarriek biztanleriarengan eta ingurumenean eragin apalagoa izateko politikak hartzeko eskatuko die Nafarroako Gobernuak Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioari eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari, baita substantzia horiek Europa mailan urgentziaz debekatzea defenda dezan ere.

6. Halaber, Nafarroako Gobernuak, bere webgunearen bidez, plan horren betetze-mailaren berri emanen die urtero Nafarroako Parlamentuari eta biztanleriari.

Iruñean, 2016ko apirilaren 5ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sakanako denda txikien lan-mahai bat era dezan, txikizkako merkataritza sustatzeko plan bat taxutu dezan eta turismoa indartzeko kanpainak bultzatzen.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Sakanako denda txikien lan-mahai bat era dezan, txikizkako merkataritza sustatzeko plan bat taxutu dezan eta turismoa indartzeko kanpainak bultzatzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Sakanako denda txikien eta turismoaren egoerari buruzko honako mozio hau aurkezten du, kasuko batzordean eztabaidatzeko.

2007az geroztik Nafarroako Foru Komunitatea eta Espainia osoa zigortu dituen krisi ekonomikoak eragin negatiboa izan du enpleguan eta kontsumoan eta sektore zehatz batzuetan; esate baterako, txikizkako merkataritzan, zeinaren fakturazioa larriki kaltetu baita kontsumoaren jaitsiera horren ondorioz.

2014ko eta 2015eko datuek hobekuntza progresibo bat erakusten badute ere txikizkako merkataritzaren jarduera-adierazleetan, enpleguan eta aurreikuspenetan, sektorearen egoerak oraindik ere eskatzen du sektorea bultzatzen lagunduko duten jarduera-politikak baliatzea.

Egoera horrek eragin handiagoa izan du Nafarroako zona zehatz batzuetan, eta agerian utzi du dagoen lurralde-desoreka, zeina bereziki kritikoa baita Sakana bezalako eskualdeetan.

Halaber, Nafarroako Foru Komunitatean gero eta merkataritza gune handi gehiago egoteak oke-rragotu egin du Sakanako denda txikiek bizi duten egoera larria. Hori horrela da, hain zuzen ere, sektoreak eskualdean bizi duen egoera delikatuarengatik eta merkataritza gune handiekiko baldintza-desberdinkeriarengatik; hori dela-eta, Sakanako merkatarien ordezkariak eta kolektiboek Nafarroako Gobernuari beren egonezaren berri eman diote jada, eta politiketarako plan urgente bat eskatu diote.

Denda txikiek lan-kostu handiei aurre egin behar ohi diote; izan ere, hitzarmen probintzialak aplikatu behar dituzte, eskualdeko dendekin zuzenean lehiatzen diren enpresa handietako hitzarmen nazionalen gainetik daudenak. Horri gehitu behar zaizkio alokairuen kostu handiak eta pairatu dituzten eta pairatzen ari diren finantzaketa-zailtasun ikaragarriak. Horrenbestez, Sakanako txikizkako merkataritzak lehiakortasuna galdu du.

Halaber, merkataritzaren eta turismoaren elkarrekiko eragina saihetsezina eta ezinbestekoa da, Nafarroaren ipar-mendebaldeko eskualde honek urteak daramatza eskatzen turismoari bultzada bat ematea. Horretarako, beharrezkoa da kolektiboak, erakundeak eta Foru Gobernua koordinatzea, Sakanarako erakargarriak izanen diren turismo-produktu berriak diseinatu ahal izateko.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Sakanako denda txikien lan-mahai bat era dezan, merkatarien, erakundeen eta ukitutako eragileen parte-hartzearekin.

– Sakanako txikizkako merkataritza sustatzeko plan bat taxutu dezan, hori bultzatzera bideratutako politikekin.

– Kanpainak bultzatzea Sakanan turismoa indartzeko eta herritarrak denda txikien garrantziaz kontzientziazteko.

Iruñean, 2016ko apirilaren 5ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ikastetxeak taxutu ditzan halako moduan non ikasketak hizkuntza eredu ezberdinetan egiten dituzten ikasleek hezkuntza-esperientziak konpartituko baitituzte eta elkarrekin egonen baitira.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita ikastetxeak taxutu ditzan halako moduan non ikasketak hizkuntza eredu ezberdinetan egiten dituzten ikasleek hezkuntza-esperientziak konpartituko baitituzte eta elkarrekin egonen baitira.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ikastetxeak taxutu ditzan halako moduan non ikasketak hizkuntza eredu ezberdinetan egiten dituzten ikasleek hezkuntza-esperientziak konpartituko baitituzte eta elkarbizitzan egonen baitira.

Euskara Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan sartzeari buruz duen 159/1988 Foru Dekretuak lau hizkuntza-eredu ezarri zituen: A, B, G eta D.

Nafarroako Foru Komunitatean hizkuntza-eredu ezberdinak ezarri joan diren bitartean erabaki batzuk hartu dira, zeinen bidez hainbat zentro, beren hizkuntza-eremuari dagozkion ereduak eskaintzen zizkietenak ikasleei, bi ikastetxe bihurtu baitira, gaztelaniazko edo euskarazko eredueta eskaintza bakarra zutenak.

Jakina da ereduak (A, G eta D) batera eskaintzen dituzten zenbait zentrotan antolamendu-er-

bakiak hartu direla, eredu ezberdinetako ikasleek ez dituzten elkarrekin erabil eskolako guneak eta denborak; alegia, sarrerak, irteerak, aisialdiak eta jarduera osagarriak.

Beste alde batetik, gaur egun, Hezkuntza Departamentuak bere joerari eusten dio, ikastetxe sortu berrietan ikasleak hizkuntza-ereduen arabera bereizteko. Halaxe ikusi dugu jakitera eman denean Sanduzelai auzoan DBHI berri bat eraiki behar dela D ereduko (euskarazko hezkuntza) ikasleak hartzeko.

Jakina da, halaber, Nafarroako Foru Komunitateko hainbat ikastetxe publikotan hezkuntza-komunitateek eskaerak aurkeztu dituztela, gaur egun hainbat hizkuntza-eredu eta hezkuntza-esperientzia batera daudela-eta, horiek banatzeko aukerari lotuta daudenak. Horrenbestez, hizkuntza-ereduen arabera banaketa edo bereizketa egin dadila eskatu da (Noaingo ikastetxe publikoa, Sarrigurengoa, jadanik gauzatu dena).

Agerikoa eta ukazina da ikasleek eskubidea dutela irakaskuntza bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan jasotzeko, baina eskubide hori bateragarria izan daiteke, eta izan behar da, ikasle guztien arteko bizikidetzarako eskubidearekin.

Garrantzitsua da, gaur egun, lehenagoko hezkuntza-politika segregatzaileen akatsak zuzentzea, irakaskuntza Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza ofizial batean ala bestean jasotzeagatik oztopatu eta eragotzi egin baitute ikasleen artean hezkuntza nahiz bizikidetasun esperientziak trukatzea.

Funtsezkoa da eskola-erakundeak ingurunera egokitu daitezen, ingurune horren osaera sozialaren isla izanez, hezkuntza-arloko erantzuna tokian tokiko ikasleen berezitasunen arabera egokituz eta doituz.

Hezkuntzarako eskubidea bermatu behar da bizikidetasunaren barneko eta bizikidetasunerako hezkuntza ezarri, eta horretarako beharrezkoa da espazio sozial komun batean bizi diren ikasleen hezkuntza-esperientziak partekatzen dituzten ikastetxeak taxutzea. Hartara, ikasleen bizikidetasuna sustatu behar da, albo batera utzita beren ezaugarri indibidualak edo ikasketak zer hizkuntza-eredutan egiten dituzten.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoki diren prozedurak taxutu ditzan, titulartasun publikoko ikastetxeetan elkarrekin bizi daitezen hizkuntza-eredu ezberdinak, eta orobat premiatzen du hezkuntza publikoaren eskaintza berrantola dezan bereizketa gertatu den ikastetxe guztietan, foru araudian ezarritako hizkuntza-eskaintzak jasota.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du titulartasun publikoko ikastetxe eraiki edo sortu berriek beren eremuari dagozkion hizkuntza-eredu guztiak eskain ditzaten beren hezkuntza-eskaintzan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du titulartasun publikoko ikastetxeetan neurriak ezar eta antola ditzan, ikastetxe publiko berean edo espazio komunak eta instalazio bera duten ikastetxe publiko ezberdinetan hizkuntza-eredu ezberdinetan ikasten duten ikasleek koordinatuta lan egin dezaten hezkuntza-komunitatearen arretan, eguneroko bizitzako esperientziak partekatuz, Bizikidetasun eta Elkarlan Plan batean oinarrituta, dagozkion hezkuntza planetan jasoko dena, eta horretara bideratutako egintza zehatzak kontuan hartuz.

Iruñean, 2016ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean patenteen sorrera susta dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Foru Komunitatean patenteen sorrera susta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean patenteak sortzea susta dezan.

Jabetza industrialak neurtzen du lurralde batek bere potentziala ezagutzeko eta jakintza ustiatzeko daukan ahalmena, hura proiektio ekonomiko bihurtzen duela; patenteak dira, hartara, jakintzaren arloko posizionamendua markatzen duen adierazle numerikoa.

Europako Patenteen Bulegoak 2016ko martxoaren azken egunetan emandako datuen arabera –Espainiako Gobernuak ez du erakunde hori babesten–, Espainian 1.527 patente-eskabide erregistratu ziren 2015ean; 2014an baino % 3,8 gehiago. Alegia, 31,7 europar patente milioi biztanle bakoitzeko; hartara, Espainiak 24. tokia hartzen du, 2015ean patenteren bat erregistratu duten 38 herrialdeen artean.

Espainiako patentei dagokienez, 2015ean patente nazionaletarako 2.882 eskabide aurkeztu ziren –2014an, berriz, 3.031 izan ziren–, Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoaren txostenaren arabera (hori ere, orain dela gutxi argitaratu da).

Nafarroan, Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoaren txosten beraren arabera, 56 eskabide aurkeztu ziren 2015ean –aurreko urtean, berriz, 76–; alegia, % 20ko jaitsiera drastiko bat gertatu da. Izan ere, 2010ean erregistratutako 124 eskabideak oinarri hartuta, jaitsiera etengabea izan da.

Foru Komunitateari buruzko beste datu batzuen arabera –patente gutxi atzerriko lankidetzan

edo I+G+b-ko gastuaren eta patente kopuruaren arteko desoreka–, daukagun posizioak iraganeko autokonplazentziatik urruntzera eraman behar gaitu.

Oso garrantzitsua da egoera honi buelta ematea eta patenteen sorrera babestea; izan ere, Nafarroak, kultura berritzaile frogatua izaki, aitzindaria izaten jarraitu behar du patenteen sorreran, ekintzailatza sustatuz eta ikerkuntzaren eta garapenaren arloan jadanik jardunean ari diren enpresak sendotuz.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitatean patenteen sorrera susta dezan, jarduera berritzailearentzako babesa ziurtatuz, patente-ekoizpenarako pizgarriak emanaz eta honako ekintza hauek jasoko dituen plan bat garatuz:

1. Patente espainiarren eta europarren ekoizleentzako ordain ekonomikoa.

2. Espainiar eta europar patente-ekoizpenaren sustapena.

3. Espainiar eta europar patenteen ekoizpenari buruzko prestakuntza.

4. Europako Patenteen Bulegoarekin harreman formalak hastea.

5. Patente-ekoizpenarentzako sari bat abian jartzea.

6. Lortutako emaitzen jakinarazpena.

Arestiko puntuetako bakar batek ere ez du eskubiderik emanen sortutako patentearen titularitasunaren gainean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LGTBI pertsonen tratu-berdintasunerako eta bazterkeriarik ezerako arlo berariazko bat sor dezan.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita LGTBI pertsonen tratu-berdintasunerako eta bazterkeriarik ezerako arlo berariazko bat sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LGTBI pertsonen tratu-berdintasunerako eta bazterkeriarik ezerako arlo berariazko bat sor dezan.

Sexu-joeragatiko eta genero-identitateagatiko bazterkeria ez da inondik ere gainditu, oraindik dirau eta. Indarrean dagoen injustizia sozial eta estruktural hori areagotu egiten da zenbait baldintzaren ondorioz: pertsonaren generoaz edo sexu-joera edo -identitateaz gain, haren klase soziala, jatorria edo gisako inguruabarrak gehitzen dira. Oinarriko bazterkeria bera erakusten duten errealitate horiei guztiei erantzuna eman behar die Administrazio Publikoak: alde batetik, bazterkeria pairatzen duten pertsonen eskubideen garapen osoa bermatzeko; eta, beste alde batetik, dauden balia-

bideak optimizatzeko eta ahalik eragin handiena lortzeko berdintasunaren aldeko eta mendekotasunaren eta bazterkeriaren aurkako borrokan.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak bere gain hartu beharko luke LGTBI pertsonen tratua berdina emateko eta ez baztertzeko arlo bat sortzeko ardura. Arlo horren bidez, eta Nafarroako Gobernuaren bultzadari esker, bideratuko liriteke sexu-joeragatik eta genero-identitateagatik bazterkeriaren aurkako ekintzak.

Aipatu arloa erreferentzia izanen da eta LGTBI esparruan jadanik jardun sendoan ari diren entitate sozialekin batera lan eginen du, xede komun bat baitute, "Nafarroako politika publikoetan eta gizarte zibilean tratua berdina ematearen eta ez baztertzearen printzipioaren presentzia bultzatzea, asmo horrekin diskurtso eta praktika inklusiboak sustatuz, erakundeetan zein gizartean, eta eragileak eta baliabideak aktibatuz, egingarri bihurtuz.

Arlo horren helburu nagusiak honako hauek izanen dira:

1. Politika berariazkoak sustatzea eta orientatzea, tratua berdintasunaren eta bazterkeriarik ezaren alorrean.

2. Sustapena egitea, tratua berdintasuna eta bazterkeriarik eza Administrazio arlo guztien arau-garapenean zein garapen politikoan trabeskako moduan har daitezkeen kontuan.

3. LGTBI pertsonen zerbitzuan jartzea informazio, aholkularitza, orientazio eta bestelako mekanismo eta tresna batzuk, haien eskubideak errespetarazte aldera; arreta berezia emanen zaie eskubide horien urraketari, edo bazterkeriazko tratuen kasuari.

4. Baliabide eta tresna sortu berriak beste alor edo esparru batzuetan daudenean artikulatzea eta optimizatzea. Adibide gisa:

1. Sexu-hezkuntzaren, HIESaren prebentzioaren eta beste alor batzuetan garatzen diren ekintzak.

2. Alor publikoan diharduten zerbitzuak.

3. Entitate pribatuen proiektuak.

Sortuko den arlo berri horren jarduerak bilatuko du sinergiak sortzea, halako moduz non aurreko guztiak integratu, osatu eta indartu egiten baitira.

Tratua berdintasunerako eta sexu-joeragatik edo genero-identitateagatik ez baztertzeko arloak Nafarroako lurralde osoan jardun beharko du, honako hauek konbinatuz:

– Prebentzio, pedagogia, kontzientziatze eta sentsibilizazio sozialeko planteamendu bat, gehiago begiratzen duena epe ertain-luzeko eraldaketa sozial eta kulturalen prozesuetara. Horretarako, programak eta jarduketak konbinatuko ditu, sentsibilizazioan, eragileen prestakuntzan, dibulgazio-materialgintzan, gizarte instituzio eta erakundeentzako aholkularitzan, eta abar.

– Planteamendu operatibo bat; alegia, laguntza ahalik eta azkarrena ematea pertsona jakin batzuei, egoera jakin batzuetan eta bilakabide jakin batzuetan. Horretarako, laguntzailatzat hartuko ditu antena gisa jokatuz bazterkeriazko egoerak atzematen dituzten eta pertsona nahiz taldeei laguntza ematen dieten erakundeak, Nafarroaren lurralde osoan aurkitzen direnak, ahalik eta herri-tar gehienengana iristeko.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du LGTBI kolektiboari arreta emateko berariazko arlo bat sor dezan, besteak beste honako eginkizun hauek izanen dituen:

1. Jarduketak egitea LGTBI pertsonen bazterkeriarik paira ez dezaten, kolektibo horren erabateko parekatze legala eta soziala gerta dadin laguntzeko, eta bazterkeriazko edozein jarduketa, arautze eta jarrera ekiditeko.

2. Departamentu-arteko plan bat prestatzea, bazterkeriarik ezerako.

3. Bazterkeriarik ezerako departamentu-arteko planaren exekuzioa gainbegiratzea.

4. Harremanak ezartzea Nafarroako Gobernu-ko departamentuekin eta beste erakunde pribatu eta publiko batzuekin, planaren garapena bermatzeko.

5. Nafarroan LGTBI Kontseilu edo batzorde iraunkor baten sorrera bultzatzea, parte-hartze sektorialeko aholku-organo eta eztabaidarako plataforma egonkor gisa. Aipatu kontseiluak bilatuko du gay, lesbiana, gizon-emakume bisexual, transexual eta intersexualen eskubide berdintasuna, askatasuna eta errekonozimendu soziala sustatzea.

6. Hezkuntza, gizarte zein kultura arloko jarduketak, programak eta proiektuak garatzea, LGTBI-fobiaren aurka egiteko trabeskako moduan eta erakunde guztietan.

7. Lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualen eskubideak bermatzeko eta homofobia, bifobia eta transfobia desagerrarazteko legea bultzatzea eta prestatzea.

8. Ikerketa bat bultzatzea, diagnostiko bat egin eta Nafarroako LGBTBlren errealitatea ezagutzeko, dituen beharrak identifikatzeko balioko duena.

9. Sexu-joerarekin eta genero-identitatearekin lotutako gaiari buruzko Informazioa eta Arreta ema-

teko Nafarroako Gobernuaren Zerbitzuaren sorrera bultzatzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 7an

Foru parlamentariak: María Sola Arana, Bakartxo Ruiz Jaso, Mikel Buil García, María Chivite Navascués eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aitor dezan merkataritza ibiltariak Nafarroan daukan garrantzia.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aitor dezan merkataritza ibiltariak Nafarroan daukan garrantzia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeen eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Merkatari ibiltariak esaten zaie Udalek zehazten dituzten eremuetan aldi-aldi azoka txikiak taldeka antolatzen dituztenei. Halaber, horrelakotzat jotzen dira kaleko merkataritza bakartua eta ibiltaria. Merkataritza ibiltari mota horiek guztiak antzinako merkataritzarengandiko ondare dira, horixe baita, alde batetik, saltzeko jatorrizko modua eta, beste aldetik, gaur egun produktuak salerosteko orduan elkarrekin ditugun harreman motak ezarri dituen.

Ekonomia sozialeko formula horrek lanpostu asko sortzen ditu Nafarroan; izan ere, kalkulatu da jarduera hori 1.000 familia baino gehiagoren bizibidea dela, nahiz eta uste den kopuru hori askoz handiagoa dela, autoenpleguaz gain zuzeneko eta zeharkako enpleguak sortzen dituen jarduera baita. Halaber, merkataritza horiek aldi-aldi elkartzean, azokaren eremuak dinamizatzen dira, inguruan mugimendu ekonomikoa bultzatuta. Horrez gain, merkataritza ibiltari mota guztiak kultura- eta tradizio-iturri dira, eta horrelakotzat jo behar dira.

Dena den, salmenta hori ia ez da aipatzen Nafarroan merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legean: bertan "salmenta berezi"tzat jo besterik ez da egiten, eta 51. artikuluan ezartzen da Nafarroako Foru Komunitateko salmenta berezietako txikizkako merkatarien erregistroa sortu behar dela, merkataritza alorreko eskumena duen Zuzendaritza Nagusiaren menpeko izanen dena organikoki. Nafarroan merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen zenbait artikulua aldatzen dituen apirilaren 17ko 15/2013 Foru Legeak ez zuen ezer gehitu horri buruz. Horrenbestez, uste dugu Nafarroako Gobernuak ez diola behar bezalako arretarik ematen sektore ekonomikoko horri, Foru Komunitateko kohesio sozialerako funtsezkoa bada ere.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Merkataritza ibiltariak Nafarroan duen garrantzia aitor dezan, haren kultura agerpen arruntenean –azoka txikia– eta gainerakoetan sustatuta eta Nafarroako gizartean duen balio tradizionala adierazita.

2. Koordina dezan elkarte bat sortzeko lana, zeinak Nafarroako merkataritza ibiltariaren sektore osoa bilduko baitu.

3. Sektorearen antolamendua eta kudeaketa optimiza ditzan. Horretarako, merkataritza ibiltariko adituaren figura sortuko du berariaz, Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiaren mende egonen dena.

4. Aintzat har dezan neurri batzuk prestatu eta onetsi beharra; neurri horiek kontuan hartuko dute

salmenta ibiltaria osatzen duten merkatariek daukaten eginkizuna, eta horien prestakuntza eta modernizazioa azpimarratuko dituzte.

5. Sektore hori sar dezan Nafarroako Gobernu gaizatzan ari den eraldaketa ekonomikoko eta berrikuntzako mugimendu guztietan, merkatarioriek kontuan hartuta mugimendu horietan guztietan parte hartzeari eta laguntzeari begira.

Iruñean, 2016ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean patenteak sortzea susta dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen zen Nafarroako Foru Komunitatean patenteak

sortzea susta zezan, eta 2016ko otsailaren 26ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu Eledunen Batzarrak 2016ko martxoaren 14an onetsitako adierazpen instituzionalean esandakoa, “Bakea eta Askatasuna Sahara Mendebaldean” taldeartekoaren XX. Konferentzia dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du 2016ko martxoaren 14an egindako Eledunen Batzarrean onetsitako adierazpen instituzionalean esandakoa, zeina onetsi baitzen Galiziako Parlamentuan hil horren 5ean eta 6an egin zen “Bakea eta Askatasuna Sahara Mendebaldean” taldeartekoaren XX. Konferentziaren karietara. Konferentzia horretan, autonomia erkidegoetako legebiltzarretako parlamentariak Saharako herriaren askatasunezko etorkizunarekiko beren konpromisoa berri zuten, “Santiago de Compostelako Adierazpena” onetsiz.

- Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Nazio Batuak beren goi zuzendaritzaren bidez egiten ari diren ahalegina konponbide baketsu bat lortzearen, bermatuko duena Saharako herriaren determinazio askerako eskubidea, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren eta Biltzar Nagusiaren kasuko ebazpenei jarraituz eta Afrikar Batasunaren Erakundearen ebazpenekin bat.

- Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Marokoko Erresumaren erabakia, MINURSO-Mendebaldeko Saharan Erreferendum bat antolatzeko Nazio Batuen Erakundearen Misioko langileak botatzekoa.”

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu “Mozal-legea” izenekoaren aurka dagoela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du “Mozal-legea” izenekoaren aurka dagoela bipilki, eskubide zibilak murriztu eta kriminalizatzen dituelako –esaterako, adierazpen eta informazio askatasuna–, eta lege hori berehala indargabetzea nahi duela adierazten du.

2. Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten dizkie zehatutako kazetariari eta Argia astekariari, bai eta “Mozal-legea” izeneko delata-eta kaltetuta suerta litezkeen hedabideei eta gizarte eragileei ere. Halaber, babestu egiten ditu haren aplikazioa salatze eta haren indargabetzea exijitze aldera sortzen diren dinamikak.”

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Tuteran Nekazaritza Ingeniaritzako ikasketak ezartzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuteran Nekazaritza Ingeniaritzako ikasketak ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Tuterako Udaleko gobernu-taldeak Udalaren Ekintza Plana aurkeztu du jendaurrean. Hedabideen bitartez jakin ahal izan dugunez, plan hori

2015eko otsailean hurrengo legegintzaldietarako aho batez onetsitako Hiriko Plan Estrategikoan oinarrituta dago.

Plan horretan apustu egiten da Nafarroako Unibertsitate Publikoak Tuteran duen campusean 2018rako Nekazaritza Ingeniaritzako ikasketak ezartzearen alde.

Hori dela-eta, Hezkuntza Departamentuari honako hau galdetzen diogu:

– Departamentuak zer irizten dio Tuteran Nekazaritza Ingeniaritzako ikasketak ezartzeari?

– Departamentuak aldeztu egingen al du Tuterako Udalaren gobernu-taldeak defendatutako jarra?

– Tuterako Udalaren gobernu-taldea harremanetan jarri al da departamentuarekin, aukera hori mahai gainean jartzeko?

– Departamentuak ba al daki proposamen hori Nafarroako Unibertsitate Publikoaren zuzendaritza-organoei egin ote zaien?

– Inolako bilerarik egin al du Tuterako Udalaren gobernu-taldeko arduradunekin, gaiari buruz aritzeko? Baiezkoan, zehatz bedi noiz eta norekin.

Corellan, 2016ko apirilaren 1ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ebaluazio diagnostikoari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ebaluazio diagnostikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren bidez aldatua izan zen Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 20.3. artikulua ezartzen

du diagnostikorako ebaluazio bat eginen dela Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan; halatan, "ikastetxeek banakako ebaluazioa eginen diete ikasle guztiei hirugarren maila bukatzean." Ebaluazio hori hezkuntza-administrazioek xedatutakoaren arabera eginen da, eta haren bidez "trebezia eta gaitasun hauek zenbateraino dituzten bereganatuak aztertuko da: ahozko nahiz idatzizko adierazmen eta ulermena, kalkulua eta problema-ebazpena, betiere hizkuntzaren bidezko komunikaziorako gaitasunaren eta matematika-gaitasunaren eskuratzearen norainokoaren arabera."

Horregatik guztiagatik, eta ikusita ikastetxeak kezkatuta daudela Hezkuntza Departamentuak ebaluazio horri buruzko informaziorik ematen ez duelako, honako hau jakin nahi dugu:

– Ebaluazio diagnostiko hori noiz egitea aurreikusten duzue?

– Noiz emanen diezue horren berri ikastetxeei?

– Horri buruzko zer informazio eman diezue ikastetxeei?

– Departamentuak zer epe ezarriko du ikastetxeek ebaluazio hori presta eta egin dezaten?

Corellan, 2016ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko 29 lanpostu merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko 29 lanpostu merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Aldizkari Ofizialaren bidez ikasi dugu Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko 29 lanpostu merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin dela. Horietako 11tan, euskaraz jakitea eskatzen da.

Eskakizun hori, ulergaitza bada ere, zentroko zuzendariari ere ezartzen zaio. Gure ustez, hori ez da Nafarroako hezkuntza-sistemaren errealitatearen arabera eskakizun bat, eta, batez ere, diskriminazio bat dakar profesional bikainak izan daitezkeen eta Nafarroaren errealitate soziolinguistikoarengatik hizkuntza hori ez dakiten pertsonentzat.

Hori dela-eta, Hezkuntza Departamentuari honako hau galdetzen diogu:

– Zer dela-eta egin da deialdi hori?

– Zergatik exijitzen da euskaraz jakitea Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko zuzendaria izateko?

– Zergatik exijitzen da euskaraz jakitea 11 lanpostutan?

Corellan, 2016ko apirilaren 5ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Irakasleentzako Laguntza Zentroko 6 lanpostu merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Irakasleentzako Laguntza Zentroko 6 lanpostu merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

– Zergatik atera da deialdi bat Irakasleentzako Laguntza Zentroko 6 lanpostu merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko, eta horietako 4tarako euskaraz jakitea eskatzen?

Corellan, 2016ko apirilaren 5ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Hezkuntza Departamentuko Ikuskapen Zerbitzuak egindako ebaluazioei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuko Ikuskapen Zerbitzuak egindako ebaluazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

– Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko Ikuskapen Zerbitzua zer ebaluazio ari da egiten legegintzaldia hasi zenetik?

– Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio Zerbitzua zer-nolako informazio edo esku-hartzea ari da aurrera eramaten ebaluazio horietan?

Corellan, 2016ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio Zerbitzuak egindako ebaluazioei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio Zerbitzuak egindako ebaluazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higueras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departa-

mentuko Ebaluazio Zerbitzua zer ebaluazio ari da egiten legegintzaldia hasi zenetik?

– Hezkuntza Departamentuko Ikuskapen Zerbitzua zer-nolako informazio edo esku-hartzea ari da aurrera eramaten ebaluazio horietan?

Corellan, 2016ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

Galdera, 2014-15 eta 2015-16 ikasturteetan hezkuntza sisteman berandu sartu diren ikasleen kopuruari buruzkoa, datuak hizkuntz ereduen arabera xehakatuta, sare publikoan eta sare itunduan.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, 2014-15 eta 2015-16 ikasturteetan hezkuntza sisteman berandu sartu diren ikasleen kopuruari buruzkoa, datuak hizkuntz ereduen arabera xehakatuta, sare publikoan eta sare itunduan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higueras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Zein da 2014-15 ikasturtean eta 2015-16 ikasturtearen honainokoa hezkuntza sisteman berandu sartu diren ikasleen kopurua, datuak hizkuntz ereduen arabera xehakatuta?

– Zein da 2014-15 ikasturtean eta 2015-16 ikasturtearen honainokoa sare publikoan eta sare itunduan berandu sartu diren ikasleen kopurua?

Corellan, 2016ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

Galdera, herritarren erantzukizun fiskala eta iruzurraren aurkako borroka indartzeko foru lege bidez aurreikusitako hezkuntza-jarduketan egoerari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, herritarren erantzukizun fiskala eta iruzurraren aurkako borroka indartzeko foru lege bidez aurreikusitako hezkuntza-jarduketan egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek jakin nahi du ea zertan diren foru lege bidez aurreikusitako hezkuntza-jarduketak, herritarren erantzukizun fiskala eta iruzurraren aurkako borroka indartzekoak.

Iruñean, 2016ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, industria-ekoizpenaren gorakadari buruz berriki eman diren datuak direla-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, industria-ekoizpenaren gorakadari buruz berriki eman diren datuak direla-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek jakin nahi du zein den Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioa industria-ekoizpenaren gorakadari buruzko datu berriei buruz.

Iruñean, 2016ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Tafallako Errekoleten eraikinaren zaharberritzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Tafallako Errekoleten eraikinaren zaharberritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek jakin nahi du Nafarroako Gobernua prest dagoen Tafallako Errekoleten eraikina zaharberritzen laguntzeko, bertan hainbat zerbitzu (Mankomunitatea, EEZB, agiritegia, hileta zibilen aretoa...) zentralizatzeko eta Tafallako Udalaren eraikin horren garrantzia azpimarratu eta hari erabilera emateko asmoz.

Iruñean, 2016ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Lehendakaritzaren 14/2016 ebazpena, 2016ko apirilaren 11koa, zeinaren bitartez aldatzen baita Lehendakaritzaren 2014ko martxoaren 24ko ebazpena, Parlamentuko batzordeetako bilkura arruntetako eta lan bileretako agerraldiak bertan behera urgentziaz uzteari buruzkoa.

Legebiltzarreko Lehendakaritzaren 2014ko martxoaren 24ko ebazpenaren bidez arautu zen Lehendakaritzak bertan behera utzi ahal izatea batzorde-bilkura bat, xede duena kargu publiko edo beste pertsona baten agerraldia, edo bisita bat egitea, urgentziazko kasuetan eta ezusteko inguruabarrak gertatzen direnean, geroago horren berri ematen bazaie Mahaiari eta Eledunen Batzarrari.

Eguneroko jardunean, alabaina, gertatu izan da urgentziaz bertan behera utzi behar izatea batzorde baterako deialdi bat, eztabaidagaiak kontuan hartuz zergatia galdu izateagatik, ustekabeko arrazoiak direla-eta.

Hortaz, ebazpen hura aldatu beharra dago, kasu horietara hedatu ahal izateko Legebiltzarreko Lehendakaritzak bilkura baterako deialdia bertan behera urgentziaz uzteko eskumena, Mahaiari eta Eledunen Batzarrari geroago horren berri emanik, egiten duten lehendabiziko bilkuran.

Horretarako, Eledunen Batzarrak alde aurretik erabakia hartuta eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 40.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, EBATZI DUT:

1. Lehendakaritzaren 2014ko martxoaren 24ko ebazpena aldatzea, Parlamentuko batzordeen bilkura arruntetako eta lan bileretako agerraldiak urgentziagatik bertan behera uzteari buruzkoa. Hona testu berria:

“1. Urgentzia-kasuetan, baldin eta batzordeen bilkura arruntetan nahiz lan bileretan kargu publikoek edo beste pertsona batzuek agerraldia egitea ezinezko egiten duten ustekabeko inguruabarrak gertatzen badira, edo bilkura nahiz lan bilera ezinbestez atzeratzera behartzen dutenak, Parlamentuko Lehendakaritzak agerraldi hori bertan behera utzi ahal izanen du, bai eta kasuko bilkuren deialdia ere. Halaber, antzeko arrazoiengatik, bertan behera utzi ahal izanen ditu jada programutako bisita informatiboak.

2. Halaber, Lehendakaritzak urgentziazko arrazoiengatik bertan behera uzten ahalko du batzorde baten bilkurarako deialdia, baldin eta eztabaidagaiak eztabaidatzeko arrazoiak ustekabean desagertu badira.

3. Baldin eta Lehendakaritzak arestiko ataletan ematen zaion ahalmena baliatzen badu, Mahaiari eta Eledunen Batzarrari horren berri emanen die egiten duten lehen bilkuran, horri buruz hartu beharreko erabakia har dadin”

2. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta argitaratzen den egunean bertan sartuko da indarrean”

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

